

Aske

Lezo ko aldizkaria

3. ZENBAKIA

1986 KO EKAINA



ZAZPI OHAR GURE HISTORIAZ
HERRIKO EKOLOJISTAK
DROGA PYSBEN
LEZOK KOSTALDEA ERREIBINDIKATZEN
OTANEN AURREAN
ORBEGOZO ISTEAR

EDITORIALA

3. zenbakia eskuetara orduko, berehala jabetuko zara zenbait aldakuntza gertatu direla bertan, aldizkariaren haria eta gaiak bide bere-tik jarraitzen diren arren.

Berrikuntza aipagarrienetakoa aldizkariaren egituraren nahiz idazkeraren aurki zenezake. Hau honela bideratu izan ahal da Donostiako Au-rrezki Kutxa Municipalaren laguntza eta babesagatik. Gure eskerrona, be-raz, erakunde honi.

Bestalde, eta zenbait gutunetan jaso ditugun idarokizun edo sujerentziei jarraikiz, pertsona jakin batzurengana jo dugu, aldizkari ho-netarako idazlantxo bat presta zezaten. Eta Karlos Etxezurietaz gain, ora-ingoan Patri Urkizu idazleak aurreratu digu berea, eta aurrerantzean ere laguntzeko prest aurkitu dugu. Ongi etorria damaioгу, bada, lankide berri honi.

Eta, berriz ere, hemendik luzatu nahi diogu jendeari gure es-kabidea, sujerentziak zein idazlanak idatz eta bidal diezazkiguten.

Asmoak asmo, zenbaki hau nahiko atzeraturik plazaratzen dugu. Hori dela ta, agian zenbait artikulua desgaraiz datoz argitara, baina bere horretan utzi ditugu argitalpena gehiago luza ez zedin. Adikor izango za-retelakoan gaude.

Erredakzio Taldea

Udal Liburutegia / Lezo
ASKE : Lezoko aldizkaria

LT ASK - Errezer.07



2073919

AURKIBIDEA



R. 13919
Errefer. 07

Editoriala	2 or.
Aurkibidea	3 or.
HISTORIA	
Lezo Kondairan zehar	4 or.
Zazpi ohar Lezoko historiaz	8 or.
Harizti baten mozteak sortera zitako auziaren inguruan	15 or.
GIZARTEA	
Lezoko ekolojistik	17 or.
Droga arazoa Pysbe auzoan	24 or.
Lezon Orbegozo isteko zorian	28 or.
OTANen erreferendumeko emaitzak	30 or.
EUSKARA	
Lezon A.E.K. greban	31 or.
Euskara eta euskara	33 or.
LITERATURA	
Bertsu zaharrak Lezoko neskatxei jarriak	35 or.
DENBORA PASAK	38 or.
DAGOKIONARI	40 or.
HOROSKOPOA	42 or.
BESTE SALTSAK	
Petit choux	44 or.
IRUDIMENEZKO ASKE	
Lezok kostaldea edukiko du	45 or.

LEZO KONDAIRAN ZEHAR

ITSAS ETA MARINEL EKINTZAK

Aspalditik datorkigu lezoarrei itsasoarekiko dugun grina. Agian egoera geografikoak bultzaturik, gure aurreko arbaso askok itsas lanetan bilatu behar izan zuten beren bizibidea. Merkatari askok beren txalupak zituzten salerosketetan erabiltzeko. Kaia oso garrantzitsua izan zen garai bateko merkataritza sendotzeko eta baita ere Lezoko populazioa gehitzeko.

Kaiaren erabilkerak bere arazoak ekarri zituen, batez ere aldame-neko herriekin: Donostia, Errenteria, Pasaia, ... kaiaren nagusitasun eskubidea errekumatzen bait zuten. Gorosabeli jarraituz, 1.445eko pleitu batetan hartutako erabakiak zioenez, Lezok ekialdetik -eliza dagoen lekuraino- kaia erabiltzeko eskubidea zuela dakigu.

XV, XVI eta XVII. mendeetako idazki batzuek digutenez, Lezoko kaietan hondar eta lokatz asko pilatzen zen eta, itsasbehera zegoenean, hondoa agerian gelditzen zen. Eta ondorioz, ehun tonelada baino gehiagoko untziei Lezoko kaietan sartzea guztiz ezinezkoa egiten zitzaien.


1.414 urte arte, Donostiak eskubide monopolistak bereganatuak zituenez gero, itsas trafikoa oso apala izan zen, baina aipatutako urtean Errenteriak bere eskubideak lortu zituen eta 1.525an Pasaia eta baita Lezok ere berenak eskuratu zituzten. 1.527an, eta Carlos I.aren eskutik hortik aurrera herriarentzat oso abantaila ekonomiko handia izango zen ainguratze eta kai hartzearen eskubidea lortu zuen.

Bainan arazoak ez ziren lorpen hauekin bukatu, eta Lezoko itsasuntziak txikiak izanik, legeek ziotenez ezin zezaketen zama askorik eraman, eta honela trafiko nagusia askoz haundiagoak ziren donostiar untzien eskutan gelditu zen. Hau ikusita, lezoarrek auzitara jo zuten, eta han irabazi ezker, 1.551eko

irailan emandako errege agiri baten bitartez, zama haundiekin trafikatzeko eskubidea lortu zuten.

Auzi berean, lezoarrek Pasaiako kaietan edozein merkantzia kargatzeko eta deskargatzeko eskubidea irabazi zuten. Bainan, hori bai, merkantzia zeraman untzia derrigorrez beraiena izan behar zen. Hauxe zen baldintza bakarra.

Honela, piskanaka piskanaka, abantaila hauei esker, Lezoko untziak aldameneko beste edozein kaietakoak baino askoz aurreratuagoak ari ziren bihurtzen Urte haueetan desarroilatutako merkataritzak oso ondasun haundiak ekarri zituen, baina lezoarren zorigaitzerako laister sortu ziren kaiaren erabilkera jaitsiko zuten arrazoinak. Merkatal untzien tonelajea izugarri gehitu zen eta, noski, Lezoko kaietan ezin sar zitezkeen. Gauzak honela, oso beherakada handia ezagutu zuen Lezok itsas merkataritzaren arloan.



Itsas merkataritzaren garai honetan, dirubide ugari zabaldu zen lezoarren artean. Honen lekuko zera azal genezake: 1.587ko abuztuaren 7an emandako errege lege batez, untziei lastrea (harria normalki) saltzea debekatu zen. Dakigunez, lege hau plazaratu zen arte, Lezoko seme asko eta askok, itsasbeheraz baliatuz, itsas adarreko hondoetatik ateratzen zituzten harriak, gero saldu egiten zizkieten untzi jabe eta maisuei. Batel baten zamak lau erreal balio zuen. Lastre salmenta honen bidez lezoar asko bizi ziren, batez ere behartsuak, emakumeak eta umezurtzak.

Arrantzaleei dagokienez, beren presentzia Lezoko itsasertzetan oso zaharra dela aipatu beharra dago, eta gainera jende asko okupatzen zuen lanbidea zen.

Felipe II erregearen aginduz Antonio Urkiola jeneralak Lezon zeuden Errege Untziolei hasiera eman zien eta Domingo Idiak ez koronelak bukatu zituen hango obrak (1.597). Untziola hauetan oso goi mailako untziak egiten ziren. Untziolak bi zatitan banaturik zeuden: lehenengoa eta haundiena untziak egiteko erabiltzen zena, eta bigarrena untzi materiale ezberdinen fabrikaziorakoa. Esaten denez, nahiz eta frogatik idatzirik ez egon, untziola hauetatik atera ziren "Armada Invencible" zeritzan eskudra espainiarreko zenbait untzi eta galeoi.

Lezoko untzioletan ere egin zen, 1.609. urtean, Ozeanoko Eskudrako kapitaina izango zen "Nuestra Señora del Pilar y Santiago" izeneko nao ospetsua. Juan Beas sevillarra izan zen maisu nagusia untiaren eraikuntzan; Idiak ez koronela, berriz, superintendentea eta Onofre Isasti tenedorea. Oso haundia zen galeoia, mila ton berrehun toneladetakoa. Hau eta beste 15 itsasuntzi gehiago egin ziren oraindik.




Lezoko untzioletatik denetatik ateratzen zen. Eta aurrekoak bezalako unti indartsuen ondoan, arrantzale txalupak, batelak, errege eskudrarako baje txikiagoak, merkatal untiak, ... egiten ziren. Eta lan hauetan lezoar batzuen izenek ospe eta aintza haundia hartu zuten; hauen artean: Joan Martinez Isasti eta Onofre Nuñez Ierobi.

Martinez Isastik bere liburu famatuan esaten digunez, untiolak Port Borda deituriko lekuan eraiki ziren. Eta bertan, untiolaren barruan Maria Magdalena izeneko hermita altxa zuen bertako langileek meza entzun zezaten.

Nahiz eta XVI mendean aseguru oso gauza arrunta ez izan, bazen den Burgosko Juan Lopez de Soto agente bati beren untiak, merkantziak, ekipoak, munizipioak, ... aseguratzen zizkioten kapitain, kontramaisu, eta unti jabe batzuk. Hauen artean Joan Villaviciosa aitonseme lezoarra.

Gure barkuek egiten zituzten itsas bidaiei buruz badakigu zer edo zer. 1.570. urtean, Terranovaruntz zihoan Bixente Etxaberen naoa urperatu egin zen. Tripulazioa sanjoandar eta lezoar marinelez osatua zegoen eta beren kapitaina Joanes Lezokoa zen. Tripulazioa uretara bota zen eta denak, bat ezik, salbatu ziren. Hala ere behin lehorrean janik eta erroparik gabe zeudela ikusirik, eta Tomas Garzia Ureder marinel lezoarraren esanez, Santo Kristori meza bat eskaini zioten. Gero, haitz eta izotzen artean begiratzen hasi ziren, eta bolbora barrika batzu aurkitu zituzten. Honekin sua egin zuten, eta besteen ustez Lezoko Santo Kristori esker, hortikan pasatzen zen beste itsasuntzi batetik sua ikusi, haiengana hurbildu eta denak salbatu zituzten.



1.586. urtean, Sevillatik Pasaiara zetorren lezoar itsasuntzi bat artileriazko piezaz beterik. Garai horretan kortsarioak nonahi zeuden, baina hauek oso zorte ona izan zuten beren bidaian ez bait zuten kortsariorik inon ikusi. Honela Deba pasata, Itziarko Ama Birjinaren basilizaren aurretik igarotzen ari zirelarik, kainoi haundiena erabiliz ohorezko salba bat botatzea bururatu zitzaien eskerrak emateko. Bururatu eta egin. Untzia bi zatitan hautsi zen eta marinel guztiak ito egin ziren, bost ezik. Bost hauek egur bati helduta pasa zuten gau osoa, eta Mutriku aurretik igarotzen ari zirela, arrantzale batzuek erreskatatu zituzten. Hala ere, gauz egin zuen esfortzuagatik, hil egin zen han bertan Andres Iturain.

Karlos ETXEZURIETA

"Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa". Lezo, 1.984

ZAZPI OHAR LEZOKO HISTORIAZ

"ASKE, Lezoko aldizkaria" ko partaide batek eskatu zidan zerbait idatz nezan bertarako, eta herriko seme eta alkate ohia den honek nola uka ziezaiokeen horrelakorik ? Duda-mudatan nengoela zertaz aritu, azkenez erabaki nuen idaztea zazpi ohar Lezoko historiaz, oraingo egoeraz izango baitira egingo dutenak ni baino hobeto eta ikuspegi hotzagoz.


Leandro Silvan- ek 1.970. urtean argitaratu zuen liburutto batean Lezoko berri batzu ematen dizkigu, baina aski eskas direla aitortu beharrean gaude. Hutsune nabarmen hau, dirudienez Karlos Etxezurietak egin dako lanak betetzen du nolapait. Honek Aske- ren lehen alean " Oiarso hara na eta Lezoren sorrera " deitu lantxoan Lezoren etorkiaz eta lehen mendetaz mintzo zaigu, nik nere aldetik hemen, historiagile ez naizen arren, zenbait liburutan Lezoz aurkitu ditudan aipamenak emango ditut haren lanaren osagarri izango direlakoan.

- 1.- Pierre de la MARCA Bearneko historiagile handiak XVII. mendean esaten digu Ptolomeok ematen dituen zehaztasunen arabera erromatarren OIARSO ospetsua Lezon kokaturik izan zitekeela. Era berean " Diccionario Geográfico - Histórico de la Academia de la Historia. Madrid, 1.802 " delakoak Lezo ibaiaz dio, idazle zenbaiteren ustez Ptolomeoren " Menlasco " edo Melaren " Magrada " ibaia daitekeela. Usteak erdi ustel izaten ohi dira, ordea, eta ahal huts bezala kontsidera dezakegu albiste hau, ediren berezirik egiten ez den artean.

2.- Lope de Isasti historiagile lezoarrak bere " Compendio Historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa " liburuan, 1.625.ean idatzi eta 1.850.ean Donostian argitaratuan, esaten digunez Don Pedro de Vizcaya, Don Nuño Bizkaiko bigarren kondearen anaia, Santxo Abarka Nafarroako erregearen kapitaina izan zen, eta Amet errege moroa preso hartu zuen 912.urtean, eta " Vizcaya " deitu zen auzoan etxe bat eraiki zuen, Pasaia ondoan, Lezoko barrutian, itsas bazterrean, " Vizcaya " abizeneko leinua sortuz.

Don Pedro Tizun, bere aldetik, Don Rodrigo Toledoko artzepizpikuaren aitona izan omen zena eta Pedro de Vizcaya-ren ahaidea, auzo hortan 1.080.urtean ere beste etxe bat altxa zuen eta gontserbatzen omen zen, bertako abizena Tizun zelarik.


3.- Nafarroako erregea Santxo Handiaren garaietan, eta 1.025.urtean hain zuzen, Garzia Azenarizek eta bere emazte Gaila andreak San Juan de la Peña monastegiari opari egiten diote Lezoko barrutian zen komentu bat Ollazabal izenekoa bere sagasti eta lurraldeekin, bere mugetan zeudelarik Gaharraga, Orer, Urrte, Alvizt, Urre Las curenpean, Ainarte de Areiznabar, Arazagudunpean Verasibiaraino, Havallarre, Hezizazaval eta Hezigaray. Komentu hau " Sancte Colombe ", alegia Usue santaren babespean zegoen. Historikoki hau



dugu lehen dokumentu zehatza, garai hartako toponimia, leku izenak izkribuan bezala gontserbatu ditugularik. (Ikus Gonzalo Martínez: Guipúzcoa en los albores de su historia (siglos X-XII). Donostia, 1975, 175. orrialdean).

4.- Lezoko fundatzailea, ordea, Guillermo de Lazon izango da, Gaztelako Alfonso VIII.aren manupean. Honek 1.203.urtean agiri bat eman zion latinezko: " Item dono vobis Guillelmo de Lazon et socios suos ut sint vestri vicini ". "Era berean, Gilermo Lazon eta honen lagunak ematen dizkizuet zuen auzokide izan daitezen ".

Tradizioz, ahoz-aho eza gutzen da Lazon hau izan zela Lezo-Aundi etxeko nagusia eta XVI. menderarte herriko izena Lazon izango da ere.



5.- Baina Lezoko garrantzia handia izango da batez ere XVI-XVII. mendeetan zehar. Carlos V enperadorea bertatik iragan zen eta 1.527. ean maiatzaren 20 an bertako auzokideak eta itsasontziak edonon porturatzeko eta ainguratzeko aske egingo ditu. Felipe IIak Dela BORDA lekuan errege itsasontzigintzategia eraiki zuen, bertan egitako itsasontzi famatu batzu hauexek direlarik:

<u>Izena</u>	<u>Urtea</u>	<u>Mota</u>	<u>Toneladak</u>	<u>Egilea</u>
MARIA	1.574	Nao	850	
MARIA	1.578		346	Onofre Isasti
Nuestra Señora del Pilar y Santiago: CAPITANA	1.609	Galeoia	1.200	Juan de Beas
Nuestra Señora de los ANGELES	1.730		300	

(Santa Catalina-n 1.734.ean galdua)

Aipa ditzagun orain, ospetsuak izan ziren zenbait marinel, kapitain, almirante, jeneral, idazle, inbentore eta

apaiz:

- Miguel de DARIETA BAZKARDO, infanteriako kapitaina Carlos V.aren garaian.
- Juan NUÑEZ de LEZO, Lezo-Aundiako nagusia, kapitaina, Lope de Isastiren aitona, amaren partetik.
- Juan de la BORDA, kapitaina.
- Juan MARTINEZ de LEZO, erretorea 1.520.ean Lope de Isastiren osaba.
- Domingo de LEZO, Cuzco-n gotzai hil zena 1.552.urtean.
- Juanot de VILLAVICIOSA, jenerala, Juan NUÑEZ-en anaia, 1.582.urtean San Miguel uhartean hila.
- Esteban de VILLAVICIOSA, Juanoten semea, almirantea.
- Miguel de VILLAVICIOSA, Juanoten semea, almirantea, Flandesen 1.573.ean hila.
- Juan de VILLAVICIOSA, Juanot txikia, kapitaina, Juanoten semea.
- Juantxo de VILLAVICIOSA, itsasgizona, Juanoten semea.
- Garcia de VILLAVICIOSA, 1.626.ean Lisboan hila, Estebanen semea.
- Lope MARTINEZ de ISASTI, idazlea eta apezka.
- Luis VIÑAN y VERA, XVII.mendean zakarraz eta lohiz portua garbitzeko makina bitxi baten asmatzailea.
- Francisco de GAINZA, Lezon 1.658.urtean jaioa, Iranzuko historia idatzi zuena, 1.738.urtean Iruñean argitaratua.
- Eugenio de OCHOA (Lezo 1.815, Madrid 1.872), idazlan askoren egilea eta argitaratzailea (Ikus: Lezoko kale izendegiaz zenbait ohar. Lezo, jaietako esku programa, maiatza, 1.982).

6.- Herriko artxiboan, eleizarenean, eta batez ere Madriden Academia de la Historia-koan eta Gerra-koan aztertuz geroz beste asko eta asko albiste bitxiekin atera daitezke, guk ondoren, ordea, herrikotik harar

tutako batzu emango ditugu:

1.642.- Gurutze Santuko burdinezko sarea, Juan de Cialceta " maestro de hacer rejas " burdinginak landua.

1.656.- Unibertsitatea eta Lezoaundiko nagusien artean akordioa bide eztabaidatsu batzuen gainean: Marieneatik Zubitxora eta he- mendik Tiñelu eta Sorotxora zihoazenei buruz.

1.657.- Gurutze Santuko aldare aurreko baranda, Juan de Cialcetak e- gina.

1.675.- Gurutze Santuaren handitzea, Juan de Iribarren harginak egi- na.

1.681.- Gurutze Santuko ganarbea eta boilerdiaren gailurra, Juan de Iribarrenek eginak.

1.682.- Gurutze Santuko erretabloa, Juan de Apaistegi, Pedro de Lar- tijera eta Felipe de Leiza arkitektoek eginak.

1.686.- Apaizei dantzan egitea debekatzen zaie.

1.749.- Iraileko festetan 55 dantzarik parte hartzen dute, eta ze- zenak ere badira.

1.772.- Gurutze Santuko eskuin-ezkerreko aldareak Santiago Jauregik eginak.

1.837.- Gurutze Santua Aranora ematen dute.

1.839.- Azkoitira, 1.837-39.eko gerraren gehiegikerietatik Gurutze Santuak zaint zitzan.

7.- Bertsolaritzak gaur egun indar handia duela ez dago dudarik, baina garai batetan ez zen ttipiagoa bertso zaletasuna Lezon, eta errome- riak zirela, jaiak zirela, aste santua zela, maiz izango de abestua Lezo, adibide bezala Xenpelar herriko festetan egon zenekoa dugularik.

Hona hemen, bada, Lezo aipatzen duten zenbait bertzoren zerrenda, eta bertako zenbait bertsolari:

- 1.851.- Gurutze Santu Lezo'koaren bederatziurreneko gozoak. (Ikus: A.Zavala: Kristaubidea bertsoan. Auspoa 174. Tolosa 1.984, 39.orrialdean, bertan musika doinua ere ematen da).
- 1.860 inguruan.- Lezoko jaietan Xenpelar eta Ardotx bertsolariak izan zuten bertso saioa. (Ikus: A. Zavala: Xenpelar. Auspoa 88-89-90. Tolosa 1.981, 105. orrialdean, bertan musika doinua ere ematen da).
- 1.863.- Bertso berri batzuben / aurten ditut jarri / Santo Kristo Lezo'koen / alabantzagarri...(A. Zavala: Kristaubidea bertsoan, aipatu liburuan, 71.orrialdean) 18 bertso zortziko txikian.
- 1.899.- Lezon Gurutze Santuaren ohoretan bertso eta idazlan norgehiagoka bat antolatu zen.



Euskera, Bilbo 1.962, 43. orrialdean.)

Juan Jose Sarasola Azkue
 " Lexo " (1.897-1.950)(Ikus:
 A. Zavala: Lexo bertsolari.
 Auspoa 79-80-81, Tolosa 1.968).
 Jon Garbizu " Zubigar " (1.894-
 1.930), Tomas, Jose, Liborio
 eta Danielen anaia, eta Elias
 Salaberriaren lehengusua, 36
 urtez hil zen trenak hartuta.
 (Ikus honen Lezoko hiztegia
 Euskaltzaindiaren aldizkarian:


Mereziko luke, noski, Lezoko historia on bat argitara ledin, honela herriko seme guztiok bere ira-

ganaz, etorkiaz jabetuz hobeto eta ezagutza haundiagoz gure sorlekua maite genezan.

Era berean Garbizutarren bertso bilduma on batek euskal literaturari argi berri bat emango lioke, baitipat gerraurreko giroa aztertzeko unean. Eta zer esanik ez, mereziko lukeela gorago aipatu ditugun bertso guzti hoiak eta beste batzu berriagoak bilduma eder batean biltzea eta moldiztegitratzea, belaunaldi berrien jakingarri izan daitezzen.

Ea bada, asmo eta eginkizun eder horiek ez diren berriro hutsean erortzen.

Patri URKIZU



HARIZTI BATEN MOZTEAK SORTERAZITAKO AUZIAREN INGURUAN

" ... sabe que el monte y Robledal Litijioso esta en termino y Jurisdiccion dela dha çudad de fuente-ravia y a oydo dezir delos dhos Robles partida dellos son produçidos naturalmente La tierra y otros puestos por algunas perssonas mas no ssabe La cantidad ni quantos o quienes ayan puesto y tambien a oydo dezir que los Cargo habientes del Lugar de lezo Bendieron Una gran partida de dhos arboles a Juan Lopez de yriverri vezino del lugar del passaje y que el suso dho haviendolos echo cortar los hizo llebar y no puede dezir por no saber de quien sea el dho monte ... "

JUANES DE ARRETXEREN TESTIMONIOA
(1668-VIII-3)

" ... se le hizo la venta de los dhos maderos al dho yriberri con yntentos de rredimir con su proçe-dido Un zenço que el lugar de lezo tomo Para la paga de çiertas con-denaçiones que el señor Correxidor desta provinçia de guipuscoa don Juseph Beltran de arnedo Les echo alos Cargo havientes que a la sa-son heran del dho Lugar en Un pleito Criminal que hubo sobre ha-ver sacado dela parrochial del dho Lugar unos Bancos Largos que heran asientos de personas particulares para los toros ... "

MARTIN DE IRURUETAREN TESTIMONIOA
(1668-VI-14)

1.203.ean, Gaztelako Alfonso VIII.ak Hondarribiari emandako Erret pribilegioaren ondorioz, gaur Lezorenak diren lurak hiri horren jurisdikziopean geratzen ziren. Lezok XIX. menderarte ez zuen bere Hondarribiarekiko burujabetasun osoa lortuko. Hala ere mende horietan, lezotarrek inori obedièntziarik zor izan gabe hartu ohi zituzten beraien erabaki ekonomiko, politiko eta militar guztiak.

Denbora luze hortan, lezotar eta hondarribitarren arteko harremanak ez ziren beti nahi bezain onak izan, ohizkoa gertatzen zen eztabaidak auzitegietaraino iristea. Hala gertatu zen 1.668.ean, Felipe de Aginaga Hondarribiako sindiko prokuradore orokorra aurreko urtean Lezoko kargudunak izan zirenen aurka kriminalki kereilatu zenean. 1.667.urte hartan, Francisco de Gainza eta Miguel de Beldarrain alkateak, Antonio de Iturbe, Martin de Gamoneta eta beste batzu izan ziren Lezoko udalbatza osatu zutenak. Kereilaren sustraia Hondarribiako mendietan omen zegoen harizti baten moztea izan zen.


Aipaturiko hariztia Hondarribiaren distritu eta jurisdikzioan zegoen, Torrejil eta ordatxo baserrien ondoan. Haritzen artean, ugarietak lurak naturalki sortutakoak ziren, beste batzu ordea Lezokoek landatuak.

1.667.go udaran, Lezoko kargudunek Pasai Donibaneko Juan Lopez de Hiriberriri ehun-

dik gora zuhaitz saldu zizkioten "a ocho"zko 320 errealeen ordainetan. Guzti hori Hondarribiako alkateei jakinaren gainean jarri gabe, inolako baimenik jaso gabe. Hasiera batean, Hondarribiakoekin arazoak izango zituelakoan, Juan Lopez de Hiriberrik ez zuen Lezokoei zur guzti hura erosteko asmorik. Baina azkenean, Francisco de Gainza eta besteek konbentzitu zuten esanez mendi hura Lezoren udal eremutan kokatzen zela. Balorazioak egin ahal izateko Francisco de Agirre eta Martin de Aikanubieta aritu ziren hariztia aztertzen, lehena Lezoko kargudunen aldetik eta bigarrena Juan Lopez de Hiriberrirenatik. Hariztiaren moztea bi partetan egin zen, baina biak mendi berean. Apaizartza baserriko Sebastian de Olaizola eta Pasaiako bi zurgin aritu ziren lan horretan.

Lezoko kargudunek premiazkoa zuten diru sarrera handi bat, zeren Gipuzkoako korrejidoreak emandako gaitzespen batzuren ondorioz zilarrezko 400 dukatetako zentsu batekin zegoen Lezoko herria. Egoera ezeroso hau gainditu ahal izateko hariztiaren moztea nahi-taezkotzat jo zuten

Hondarribiako prokuradore eta alkateak zorrotzak izan ziren beraien akusazioetan 1.668.ean auzitegietara jo zutenean. Lezoko kargudunentzat gaztigu gogorra eta gartzela aldarrikatzen zituzten. Tamalez ez zaigu aparteko istorio honen bukaeraz inolako berri-rik geratu. Lezoko alkateek presondegian pasa ote zituzten 1.668.az geroztikako urteak




Lander ZURUTUZA

LEZOKO EKOLOJISTAK

INGURU DEGRADATU BAT BERRESKURATZEKO LEHEN URRATSAK

"El lugar de Lezo es sano, de buenos aires y de recreo, proveído de fruta, hortaliza y mantenimientos, vino y sidra en abundancia"

Lope de Isastik goiko hitz horiek idatzi zituenetik denborak eta gauzak anitz aldatu dira. Kutsadura areagotzen ari den neurrian munduan zehar izu garrizko desorekak sortzen doaz. Eta Euskal Herri osoan, munduko beste nazio industrializatu gehienetan bezala, non-nahi sortuz joan dira ingurugiroaz arduratzen diren zenbait talde erradikal eta konprometituak. Horietako talde bat Lezoko ekolojistek osatzen dutena dugu. Lezoko mugida gazte honen berri izatearren, Josu eta Jokinekin luzez aritu gara berriketan.



ASKE.- Mugimendu ekolojista zertan da Lezo mailan?

LEZOKO EKOLOJISTAK.- Azken bolada honetan kutsadurari buruz mugitu dugun gai inportanteena Orbegozorena izan da. Eta hori pasata erre-

ferendumarekin ere jarrera argia hartu dugu, kanpainan sartu eta OTANen aurka azalduz. Jende aldetik lau bat pertsonako nukleo bat gabilta, eta gero horren inguruan hogeit hamar bat pertsona, batez ere lagunak eta inguruko jendea. Baina laguntza espontaneo bat da. Ez da talde konkretu bat. Baita ere ikusten dugu jende arruntaren maila ari dela sortzen ekolojia-
ren aldeko kontzientzia bat. Lezok berriro plazaratutako ink-
kesta batek zioenez langabeziaren ondoren kutsadura da gehien
kezkatzen duena jendea.

ASKE.- Nolabait kaleko jendeak, Euskal Herriaren independentziarekin konprometatu-
rik dabilozan mugimendu ezkertiarrekin identifikatzen zaituzte. Esan dezake-
gu ekolojisten borroka, neurri batetan, euskal subironotasunaren aldeko bo-
rroka dela?

L.E.- Asanblada nazionaletan horretaz behin ere posizio argirik hartu ez bada ere,
nolabait proiektu nazional barruan zerikusirik badugu. Baina ez ezplizituki.
Mugimendu ekolojista askatasun mugimendu bat da. Txorakeria bat da kutsadura-
rik gabeko egurats bat eta mendia basoz betea, gero errepresio bat baldin ba-
dugu, egunero polizia baduzu atzean eta euskaraz ezin bazara mintzatu. Eta
alderantziz ere bai, ezin da ulertu Euskal Herriko independentzia gure baso
eta mendiak zeharo hondatuta.


ASKE.- Lezoko ekolojistek baduzue gaurregungo gizartea aldatzen ahalegindu daite-
keen helburu konkretuzko programarik?

L.E.- Beno, Lezokoak bezala ez, baina Euskal Herriko ekolojisten mailan badaude a-
sanbladetan azaldutako zenbait programa. Gure programa izan daiteke ekoloji-
aren edo askatasunaren aurka dauden beste programa horiek ahal dugun neurri-
an oztopatzea. Adibidez, guk kutsatzaileentzat benetako zigorra proposatzen
dugu, kutsatu baino lehen ondo pentsa dezaten. Eta noski, depuragailuak eta
indemnizazioak beraien poltsikotik ordaindu ditzatela. Jaizkibel mailan, Le-
zok bertan dituen lurretan behar beharrezko neurritzat jotzen ditugu zuraren

esplotakuntzarekin behin betiko bukatzea eta malda horiek zuhaitzekin estaltzea. Zeren oso maldatsua da, ez dago lur sakonik eta horko zuhaitzak moztuaz gero berriz berreskuratzeko...

ASKE.- Zeintzu dira Lezoko ingurugiroa kutsatzen edo herria eta herritarren bizia benetako arriskuan jartzen duten pertsona, enpresa edo bestelakoak? Eta zertan burutzen dira beraien axolagabekeriak?

L.E.- Orbegozo, Iberdueroko termika eta "zikina" (Industrias y Abonos de Navarra) izango dira momentu honetan kutsatzaile haundienak Lezo mailan. Lehenengoak Eusko Jaurlaritzatik milioi mordo bat jaso ondoren depuragailua jarri bazuen ere, ez du arazoa ezertan konpondu. Fabrika itxiko duen mehatxuarekin enpresarioa beti ateratzen da berearekin, eta udaletxe eta edozein instantzitan ez dute presionatzen behar bezala. Eta horrela otsailaren azkenean eta martxoaren lehenean, euriak egin zituen hartan, beti bezala kristoren grasa askatu zuen errekarara. Iberdueroko termikak, berriz, bi kutsadura mota botatzen ditu airera. Bata partikulak eta bestea anhidrido sulfurosoa. Partikula da airea zikintzen duena, hautsa, molestia handiena ematen duena. Depuragailua jarri zuten baina partikulak gutxitzeko besterik ez. Eta noski, anhidrido sulfurosoa gas ikustezin bat denez, tximinira begiratu eta dena garbia dela ematen du, baina... Eta, hain zuzen ere, hori da okerrenetako bat. Gero noizean behin eskapeak ere izaten ditu.



Gero "zikina" dugu. Horren eskapeak ez dira ke kantitate handikoak baina oso toxikoak gertatzen dira. Zeren botatzen duen anhidrido sulfurosoa prozesu kimiko baten bidez azido sulfurikoan bihurtzen da. Ondorioa jakina da, harrapatzen dituen landare guztiak erre egiten ditu. Irurtzun eta ingu-

ruko beste baserrietan kalteak handiak izan dira. Portuari dagokionez, gasa eta gasolina deskargatzen direnez, bertako depositoak erabat arriskutsuak gertatzen dira inguru guztirako. Baiilekua egokiena ez delako eta baita Pasaia azpitik komunikatzen direlako ere. Gainera, orain dela gutxi jakin ahal izan da kubatxunga horiek pitzadura batzuk dituztela, eta konpontzeko orduan berritu ordeztatu batzuk jarri dituztela. Arrisku bezala, ezin ditugu militarrek aipatu gabe utzi. Zona militarretik kanpo ere ezinezkoa da mendian lasai ibiltzea. Ezin duzu Azabaratzara jaitsi. Gainera, azken aldi honetan kristoren bijilantzia dago mendian. Igotzen zera Munttarrera edo Frantsesane aurrera eta Goardia Zibilak segituan dituzu zertan ari zaren kontrolatzen.

ASKE.- Gauza bat edo beste dela mobilizatu izan zaretenean, nolakoa izan da lezotarrengandik jaso duzuen erantzuna?

L.E.- Oso positiboa, zeren gaiak nahiko herrikoiak dira. Baina konprometatzeko mementuan jendea beti patxadaz joaten da, eta azkenean multzo bat biltzea besterik ez dugu lortzen. Jakina, enkartelatuta joateko ez da jaisten etxeoan drerik. Baina, adibidez, baserriarrek elkartasuna eskatu genuen azken mugidan berrehun firma eta gehiago jaso genituen. Orbegozon depuragailua jartzeko mementuan egin zen kanpainan ere nahiko jende bildu genuen, Orbegozora oinez antolatu genuen martxan emakumeak beren haurrekin eta guzti izan ziren. Horrek arazoa sentitzen dela esan nahi du. Kaleko jendearen eritzian beti dago Jaizkibelgo arazoa edota kutsadurarena, baina gero interes asko daude hori. Eta nolabait ere badirudi jendeak uste duela bataila galdurik dagoela, eta galduta dagoenez, hobe dela kontura gabe pasatzea.


ASKE.- Jaizkibel da ezin zitekeena aipatu gabe utzi Lezoko herriaz hitzegiterakoan. Geurea den mendia honek jasandako atentatu ekologikoak anitz izan dira, batez ere azken aldi honetan...

L.E.- Jaizkibel orain dela hamar urte pinuz estalia zegoen. Ordurako pinua heldurik eta mozteko sasoinen zegoen ere. Kasualitatez orduantxe hasi ziren mendi gutiaren erreko zuten suteak. Hor paperfabriken interes ekonomikoak ziren nagusi.

Zuhaitzik gabe geratu zenetik mendiak artzantzarako balio zuen, ordurarte ak tibatate hau terrenu batzutara mugatua egon bazen ere. Eta ditudienez artzain batzueri suteak interesatzen zaizkie, Lezon ere gertatu da artzainak men diari su ematea. Suarekin zakar guztiak erretzen dituzte eta udaberrian be- lar berria hazten da. Eta gero militarren interesak daude, terrnua garbi edu- ki nahi bait dute.

ASKE.- Zorionez Lezoko mendietan oraindik izango da liluratuko gaituen erreka, zuhaitz eta abererik. Zeintzu dira gaur egun naturak esku zabal eskaintzen dizkigun altxor horiek?

L.E.- Jaizkibelgo lekuri polit eta zoragarriena kostako aldea da. Errekak kontutan hartuaz gero, zoragarriena Leteko erreka eta Erentzinen arteko bitarte hori izango da, Gaztarrotz barne delarik. Zuhaitzen aldetik, hondoa jota dagoen un tziaren inguruan baso txiki bat ikus daiteke, zuk esaten duzun altxor txiki bat. Baso hori garai batean Jaizkibelgo kosta izan behar zuenaren muestra du- gu. Hor urrita eta gurbitza dago. Baita hostozuria ere, hor ezezik galdu egin den mota bat. Jaizkibelgo txoko horretan uretikan hamabost metrotara hagina bat ikusi dut, kasu harrigarria zuhaitz hau Piriniotako mota bat bait da. Kostan bizpa- hiru besterik ez dira geratuko. Leteko zoko- an badago gorostia ere. Gero beste gauza bi- txi bat, kostako erreka inguruetan bi mota- tako landare xomorrojaleak ikusten dira. A- bereen mailan, arraroa bada ere oraindik ba- dago azeririk. Hor Erentzinen katamusturlu- zeak azaldu ohi dira. Eta garai batean otso- ak eta oreinak ere izango ziren. Jaizkibe- lek badauka berezitasun bat, klima pirinaiko, a- tlantiko eta mediterranearen influentziak ditu. Hiru klima horien konfluentzi bat da. Eta Aranzadikoek burutu duten estudio bate-



tan esaten da harrigarria dela Jaizkibelen dagoen landare mota kantitatea.

ASKE.- Ehizaren arazoa korapilatsua eta eztabaida ugariren sortzaile izan ohi da. Jakina da geure arbasoek artaldeak zaintzen eta garia ereiten ikasi aurretik, ehiza zutela oinarrizko bizibidetzat. Ehizarako zaletasuna haundia da Lezon...

L.E.- Bai, ehizak badauka tradizio bat, baina ehiza bukatzen ari da eta orain ez da beharrezkoa. Ehiztaria ez da ehiza izorratzen ari den bakarra, ez eta printzipalena ere, baina gelditzen diren txori gazte bakar horiei tiro egiten die. Gainera, hemen botatzen den ehiza ez da bertakoa, pasekoa baizik, paseko uso eta birigarroak, eta hortik aurrera eskupetaren aurrean jartzen dena. Eta beno, hemengo fauna errekuiperatzeko lehenik ehiza horrekin bukatu behar da. Hemen asko dira ehiztariak eta handia da beraien indarra, eta noski, arazoari ez dio inongo talde politikoak aurre egiten antipopularra denez. Gure jarrera Jaizkibelen ehiza galeraztea da, baina mementu honetan ez daukagu horretarako indarrik. Ehiztarien gainean egotea da egin dezakeguna: beraien legeak ez dituztela betetzen eta postuak gaizki jarriak daudela salatu. Jaizkibel udaletxeen aldetik parke natural izendatzea gustatuko litzaiguke, herritarren espartzimenturako, artzantzarako eta lurra lantzeko balio dezan.


ASKE.- Naturarekin konprometatutako pertsonak bezala ze ekintzetan ari zarete lanean? Eta gerora begira, zeintzu dira orain dituzuen proiektuak?

L.E.- Gehienbat Gaintxurizketan dugun haztegi horretan ari gara. Milaka haritz-egur erein ditugu eta hauetatik laster hasiko dira landareak ateratzen. Oraingoan haritzen ordua izan bada ere, badugu pagoak eta urkiak landatzeko asmorik. Espezie hauek aukeratu baditugu, Jaizkibel hemengo espezie autoktonoekin berreskuratu behar delako izan da, gaur ia galduak dauden moeta horiekin. OTANekin asko desmarkatu gara, eta kanpainan zerbait adierazi behar genuenez berez gureak diren gaiak alde batean utzi behar izan ditugu. Orain, berriro kutsaduraren arazoarekin hastekoak gara, batez ere "zikina" eta CAMPSAekin. Erromeriaren bat ere prestatu beharko dugu Jaizkibelgo militarrek direla eta. Baita ere aipatu behar dugu garaiz mugitu ginelako eta batez ere baserrita-

rren presioagaitik, Zarautzeko Hormigones Azkune enpresak jarri nahi zuen ormigoi plantari ez zitzaiola baimenik eman, eta bertan behera geratu zela proiektua.

ASKE.- Ekolojiaren aldetik nolakoa da zuen Lezo utopikoa?

L.E.- Gizarte aldaketa bat beharko litzateke. Jende asko langabezian dagoen bitartean beste batzu ehun eta ez dakit zenbat mila pezeta kobratuaz dabilta, soldata handiekin. Gaur egungo gizartea ez da beharren arauera programatzen irabazi edo produkzio baten arauera baizik, eta hori herriarentzat kaltegarria da beti. Azken batean bizitzeko jatekoa, jaztekoa eta behar minimo batzu dira beharrezkoak.



Orain arte bezala bizi daiteke, baina hau kristoren despilfarua da. Gizarte utopikoan egunean lau orduko lana egingo litzateke, beharrezkoak diren gauzak gure probetxuan produzitu ahal izateko. Gizarte utopikoan autojestioa eta ahal den neurrian autarkia beharrezkotzat jotzen ditugu. Eta noski, bizimodu autojestionario batekin enpresa handiak pikutara joango lirateke. Eta askok esango digute: "fabrikak itxiaz gero nondik bizi?". Bada-go beste aukerarik. Noski, ez da biziko berrogeita hamar mila pertsonako herri bat industriarik gabe, baina Lezo batek posible izango luke. Lezo Jaizkibelen magalean dago eta euria egiteaz gain sarritan eguzkiak jotzen du, fruitaren esplotakuntza aldetik ikaragarritzko posibilitateak ditu. Garai bateko sagastiak lekuko. Noski, kutsaduraren arazoa konpondu bitartean ez dago ezer egiterik.

DROGA ARAZOA PYSBE AUZOAN

Pysbe auzoa 48 etxebizitzek osatzen dute, zeinetan 172 lagun inguru bizi diren. Pasaiako Pysbe entpresak porrot egin zuenean lezoz zuten etxadiaren salmenta burutu zuten ezkutuan eta sozietate baten esku utzi. Dena den, Diputazioaren zorpeko ere bada.

Duela 12 urtetik honantz etxe-erosketaren agiririk ez da banatu. Honela, inongo jabego-agiri eta izkriburik gabe birsalduak izan dira zenbait etxebizitza, (600.000 pezetaraino ere eman dira ordainetan).

Pundu honetaz eta beste batzuetaz hango lau auzotarrarekin mintzatzen ihardun gara.

1º auzotarra.- Hori bai, auzoak bere apioa eta laguntza eskaini dizkio, Pysbe entpresako langile ohi baten semeari auzoko etxebizitza batetan sartzeko asmorik agertu izan duenean.

2º auzotarra.- Eragabeko etxejabetzeak (atea ostikoz boteaz) eta jabegoz datzeko elkar-ren konponketak gertatu dira, edonolako jende motari sarrera eman zaiolarik. Udalak, bitartean, eskuak garbitu besterik ez du egin auzi honen aurrean.

3º auzotarra.- Auzo honek, arauz kanpoko egoera eta giro honetan, denbora gutxi arte oso irudi kaskarra aurkezten zuen hirigintza eta hijiene aldetik. Azken aldiotan, ordea, eta zenbait eskabiren ondoren, Udalak bere gain hartu du bertako bazterren garbiketa, zuhaitzen inausketa, argiketa, e.a.

4º auzotarra.- Arazorik nagusiena, halere, drogaren garraiaketa eta banak

tza da, ezpairik gabe. Agian, auzoaren egoera marjinalak egokiera eman du zenbait jende gizagabea sar zedin bertan eta droga trafikoari ekin ziezaion.

ASKE.- Hel diezaiozun, bada, arazo larri honi eta nola ematen ari den argitzen saia zaitezte: zenbat jende mugitzen den, nolako maiztasunez, ze giza motatakoak diren, ze ondorio eta kalte ekarri dizkion auzoari...

1º auzotarra.- Bai, benetan kezkatzen gaituen problema latza dugu hau. Aztoraturik jartzen gara, adibidez etxeko haurra korrika dator-kigunean, esanez: "Aizu, aitatxo, hor sotoan mutil^{bat} pintxatzen ari da besoa"

2º auzotarra.- Edoña kotxe baten gainetik euri tantak jasotzen ikusten ditugunean, heroinarekin batean zainetan sartzeko. Halako zirra-ra bat ematen dizu!

4º auzotarra.- Bai, tamalgarria da. Edozein bazterretan ikus dezakezu inoiz bere "nahastura" prestatzen ari den norbait, eta labain batez mehatxatzen zaituzte hara hurbiltzen bazara.

3º auzotarra.- Badira zenbait txoko gure auzo inguruan (kanposantu bidea, garbitoki ohiaren ingurualdea...), non jende "berezia" biltzen den eta merkantzia salerosten duen.

ASKE.- Horren aurrean zernola jokatu du auzoak eta ze bide hartu izan du?

2º auzotarra.- Udalera jo izan dugu. Bainan, han diotenez, ez omen da udaltzainen eremuan eta kompetentzian erortzen, Gobernu Zibilaren mende baizik.

1º auzotarra.- Udaletxekoek ere diote "buruetatik" edo droga-banakuntzaren antolatzaileetatik hasi beharra dagoela. Baina, gure ustez,

hona droga bila datozen gazteei estuki galdetuz gero zerbairen berri jakingo litzateke ere, drogaren jatorriari dagokionez.

2º auzotarra.- Bestalde, tamalez, arazo honetan jendea ez da mugitzen beste arazoetan bezala.

ASKE.- Aparteko istilurik gertatu al da drogaren eraginez?

4º auzotarra.- Duela ia bi hilabete tiroketak eta labainkadak eman ziren auzo honetan.

2º auzotarra.- Odol gonbituak, ur zikinak, xiringilak, e.a. ikusi ditugu bazterretan.

3º auzotarra.- Gogora dezagun auzo honetatik abiatu zen gazte bat hilik aurkitu zutela orain dela denbora gutxi Andoain aldean.

1º auzotarra.- Eta bai drogatik ateratzeko saioetan ziharduen auzoko gazte bati gehiegizko dosia sarrerazi zioteneko gertaera hura ere gogoan dugu oraindik.

ASKE.- Beraz, gauzak horrela, zer eskatzen diozue auzoari eta herri osoari?

2º auzotarra.- Zuzen ari zara galdera gisa horretan planteiatzerakoan, zeren herri osoaren arazoa bait da hau, eta ez famili batena edo auzo batena soil soilik.

Badakigu jakin, hemendik Lezoko beste auzo batetara pasa direla droga banatzaileak, Ijurkora hain zuzen, eta horiek sendi edo klan berekoak direla (ijitoak).

4º auzotarra.- Gainera, guztiz kezagarria deritzogu jendeak harturik daukan jarrera, arazo honi ezikusia eginez edo berau saihestuz, norbere familia ukitu ez duelakoaren uste edo aitzakiarekin.

ASKE.- Pundu hori aipatu duzunez gero, nondik eta zenbat jende dator zuen

auzora droga bila?

3º auzotarra.- Ezin genezake zehaztu, noski, ze jende mota eta zenbat datoren, bainan, gure iduriko, gutxi gora behera zera esan daiteke:

- . Aste barruan, 7-8 bat lagun agertuko dira egunero.
- . Asteburuan, berriz, larunbatean nahiz igandean 15 bat lagun ikusi ahal izan dugu.

4º auzotarra.- Eta jende motari gagozkiola, era batekoak eta bestekoak datozen arren, honela sailka genezazke nagusiki:

- . 30-35 urteko emakumeak (klub edo bizimodu alaia daramaten horietakoak)
- . 16-24 urte bitarteko gazteak.

1º auzotarra.- Hauek gehienbategi kanpotik datoz, baina bada lezoarrik ere gazte horien artean.

ASKE.- Arazo hau Pysbe auzoan ezezik beste zenbait auzotan kokaturik dagoenez eta herri osoarentzat garrantzizkoa denez, luze-zabal arakaturik joango gara hurrengo zenbakietan.

Dena den, herriak eta bertako erakundeek (Udala, elkarteak...) lehenbaitlehen eskusartu beharko luteke, izurrite hau ezabatzeko.

Jose Luis APERRIBAY

LEZON ORBEGOZO ISTEKO ZORIAN

Komunikabideek jada nahiko haizatu badute ere Aceros Corrugados S.A. ri dagokion auziari buruz, Lezoren etorkizunerako eta bertako biztanleentzako duen garrantzi eta eraginagatik, zenbait zertzelada ematen ditugu artikuluko honetan.

Martxoaren bigarren hamabostaldian entpresako zuzendariak iragartzen zuen hiruhilabeterako lan geldiketa teknikoa eta ordainen etenaldia aurkeztuko zituela ondorengo egunetan. Halaber behin behineko jerente bat izendatzen zuen eta sozietate jestiogile bat sortzeko asmoa agertzen (SORAC: bere baitan artzen ditu Orbegozo, Cerrajera eta Nervacero entpresa multzoak).

Altzairu arruntaren produkzioan birmoldaketa ezartzearen ondorio bat dugu hau. Dirudienez, egun haietan esaten zenez, areagotu egin zuten entpresaren larritasuna dolarraren erorketak eta arantzelen deuseztatzeak.

Orbegozoko lantegian 313 enplegatu dabilta lanean. Azken urteetan salmentek beherakada bat ezagutu zuten 1.984 an salmenta/sarrerak 6.611 milioietakoak izan ziren, hau da, 1.983 koa baino % 7,4 gutxiago.

Gaur egun entpresak dituen zorrak 5 mila milioi pezetakoak omen dira. Eta langileei zor dizkienak, batzaz beste, 140.000 pezeta dira langile bakoitzeko; guztira, beraz, 43.820.000 pezeta gutxi gora behera.(1)

Langileak kexu ziren jerentziak inongo berririk ematen ez zielako. Bestalde, lantegitik makineria eta materialerik eraman ez diezazkieten neurriak hartu dituzte.

Honezaz gain, eta ikusirik Zumarragako Orbegozo soilik aurrera ateratzeko bidegarritasuna proiektatzen ari zela, Lezokoa alde batera utziz e-rabat, indar egin nahian ari dira Zumarragako langileen eskubide berdinak eduki-


tzeko lanpostuei dagokienez.

Era berean langileen asmoa da nola edo hala fabrika martxan iraun arastea, birmoldaketa burutuko den arte. Zeren geldirik dagokeen lantegi batek in- dar gutxi egin bait lezake aldakuntza gertatuko denean. Beraz, zerau proposatzen da: txandaka 20 egun edo hilabete bat lan egin eta beste bi hilabete lanik egin ga be gelditu.

Eta oraingoz hartan dira.

(1) Badirudi atzeraturiko lantsariak ordainduko zitzaizkien agintza jaso zu- tela langileek eta lehengo hilaren azkenaldean eskuratu ere eskuratu zituztela.

J. L. A.



OTAN_{EN} ERREFERENDUM_{EKO} EMAITZAK

1.986.ko Martxoaren 12an egin erreferendumean Lezon ateratako emaitzak, laburki bederen, aipatuko ditugu hemen eta komentatuko, irakurlea gehiago nekarazi gabe lehenaz gain. Beti ere interesgarriak dira dato horiek herri baten arnasa eta gogoa neurtzeko.

Lezoko datoekin batera, erreferentzi gisan, Estatukoak, Euskal Herrikoak eta Gipuzkoak jartzen dizkizugu begien aurrean, gure herriaren erantzuna hobeki koka dezazun erantzun orokorragoekin alderatuz. Ikus ondorengo taula:

Bozketa eremua	Zentsoa	Abstentzioa	Baiezkoa	Ezezkoa	Zuria	Baliogabea
LEZO	4.041 %100,00	1.307 %32,35	548 %13,56	2.109 %52,19	50 %1,24	34 %0,84
GIPUZKOA	529.893 %100,00	%34,90	%18,50	%44,50	%1,50	%0,60
EUSKAL HERRIA	2.025.417 %100,00	%34,90	%21,50	%40,90	%2,10	%0,60
ESTATUA	28.828.425 %100,00	%40,30	%31,07	%23,52	%3,87	%0,65

Estatu mailan Euskal Herria izan bada txapeldun OTANen aurkako jarreran (%40,90) eta Euskal Herria barnean Gipuzkoa (%44,50), berehala ohar gintezke nola areagotzen den ezezkoaren maila Lezoren kasuan (%52,19).

LEZON A.E.K. GREBAN

Lezoko A.E.K.k komunikatu bat plazaratu zuen, zeinean grebarako arrazoinak azaltzen zituen. Orri hartan zioenez, Udalak 1.250.000 pezetako subentzioa zor omen dio. Zehaztasun gehiago zekarren EGINek 86.3.26an:

"Duela hiru urte, 83-84ko ikasturtean alegia, sortu zen herri honetan euskal eskola hau. Hasi eta handik gutxira Udaletxera joan ginen laguntza eske eta Udaiak ahoz (ezer idatzi gabe) Euskaltegiaren defizita ordainzuela duko esan zigun. Ikasturte horretan hilero jaso genuen subentzio hori, baina hurrengo urtean subentzioa hilero jaso beharrean bi zatitan ematea erabaki zen, lehenengoa 84.eko urritik abendua arte eta bigarrena urtarriletik ekaina artekoari zegokiona. Lehenengo zatia eman ziguten, baina bigarrena eta hurrengo subentzioen arrastorik ikusi ere ez dugu egin".

Azkenez, Martxoaren 19an Udalak onartu egin zuen A.E.K.-ri 350.000 pezeta ematea laguntza bezala.

Beste aleetan aipatu izan dugu saminez, euskara geroz gu txiago erabiltzen dela oharreraziz. Badira, aldiz, jotake lanean diharduten erakunde bultzatzaileak: ikastola, herriko ikastetxeak eta AEK euskaltegia.

AEK ri dagokionez, ondorengo taulan ezagutzera ematen du gu berak daraman euskararen aldeko lana.



1.985 - 86 ko ikasturtean arratsaldez eta gauez matrikulatu ziren ikasleek hauk dira:

URRATSAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
I. a.	7	13	20
II. a.	2	7	9

URRATSAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
III. a.	10	20	30
IV. a.	-	-	-
V. a.	2	5	7
Mintza- Praktika	7	7	14
Guztira	28	52	80

Bihoazkie lerro hauen bitartez gure lagunkidetasuna eta apioa hain lan eskergaitza egiten ari diren lankide horiei.

1.986 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



Euskara eta Euskara

Egia esan, artikulu hau idazteko garaian, bi idatzi nituen. Lehenengoa ez nuen bukatu; bigarrena bai. Baina gogorregia zen. Agian egia da errealistak izan behar dugula mundu honetan, herri honetan. Baina errealistak izanik, ez al ziren filosofia, ideologia, pentsamendu eta nahikunde guztiak pikotara joango?

Baina egia da, euskararen egoera Lezon negargarria dela. Negargarria, penagarria eta sinestezina.

Askok ez dakite, baina Lezo Euskal Herria da. Kanpotik extraterrestre erdaldun asko etorri zaizkigu. Gehienak hemen lana dutelako daude. Bestela korrika joango ziren beren herrietara. Ez duzue inoiz entzun: "Sí, en vacaciones nos vamos al pueblo; ¿tú no vas al pueblo?".

Bai, askok ez bait dakite gu hemengoak garenik. Baina... guk ba al dakigu?

Uste dut asko garela gure herrian, hemen, jaiotako extraterrestreak. Asko.

Egia ere esan behar da, asko direla ere gure herrian benetako euskaldunak (egia esan, ez hainbeste). Euskaraz hitzegiten dutenak; euskaraz irakurri eta idazten dutenak; euskaraz poteatu eta euskaraz maitatzen dutenak; den dena euskaraz egiten dutenak; EUSKARAZ PENTSATZEN DUTENAK; eta, goraipatzekoa den gauzarik garrantzitsuena, EUSKAL HERRIA euskaraz maitatzen dutenak, gure herri hau EUSKALDUNek osatzen duten (edo osatu behar luketen) herri bat bezala. EUSKALDUN hitzak ez du beste esanahirik "euskara dun" pertsona izan ezik. (Espezie hau non dagoen galdetuko duzue. Ba, badago).

"Vasco" dela, edonork esan dezake. "País Vasco"-n jaio den edonork. Nahiz eta euskaraz deus ere ulertu ez. Eta hori, hi, kriston fardea duk! "Vasco" hitzak esanahi asko eta desberdinak ditu, segun eta norentzat. Euskaldun hitzak, aldiz,

bakarra.

Zenbat aldiz abestu dugu Oskorriren kanta "euskara da euskaldun egiten gaituena"? Benoa, ba, has gaitzen hortik. Denok euskaraz hitzegiten badugu, beste gauza guztiak ondoren etorriko dira, konturatu gabe. Mundua aldatu nahi baduk, hasi hadi lehenengo hire buruarekin. Lortzean, hire herria aldatzen hasi.

Esan bezala, Lezo, lehen Euskal Herria zen, eta oraindik ere baldin bada,....ikus dadila.

Horretan denok egin behar dugu lan. Egin dezagun benetako herri euskaldun bat guztion artean!

Eta kanpoko extraterrestreek (batzuek euskara ikasi zuten; txalo bat hauentzat) extraterrestre izaten jarraitu nahi badute, nahiko larri ibiliko dira bertakoak, gu egunero eta beti euskaraz mintzatzen bagara.

Lezoko extraterrestreei, berriz, toke bat eman beharko zaie. Euskaraz baldin badakite, ba....erabil dezatela!

Erdara eta euskararen artean ezberdintasun bi bakarrik daude: euskara askoz ere ederragoa dela, eta gure hizkuntza dela. Eta penagarria da azken hau hainbeste aldiz errepikatzea.

Mikel SUSPERREGI

BERTSO ZAHARRAK LEZOKO NESKATXEI JARRIAK

Historia atalean P. Urkizuk aipatu bertso bildumetatik zenbait aukeratu ditugu eta orri hauek lekuak datu. Lehenbizi Xenpelar eta honen osaba Ardotxen arteko bertso dema dakargu.

L. Jauregi "Jautarkol"ek zerau dio: "Lezoko jaiak Gurutze Santu egunez izan oi dira. Antxe ziran, beste urteetan bezela, gure Xenpelar ta Ardotx bertsolari ospetsua, illoba ta osaba, erriko pestetarako alkate jaunak deituak. Beren bertso-saioa erri-etxe bakoititik egin bear zuten, oi dan bezela. Bañan asteko ordua baño len, enparantza osoa jendez josia zegon, eta erriko gizon edo kontzejalak larri zebiltzan jende tartean bertsolariak zeuden tokiraño ezin iri-txirik. Ori zala-ta, alkateak esan zion Xenpelarri neskatxen aurka edo kontra as- teko bertsoan. Xenpelarrek, zarragoari ta osabari zor zion itzalagatik, Ardotxi eskeñi zion asiera. Onek erantzun zion, alkateak berari esan ziola bai, ta aste- ko bera, agindua beteaz". Hona hemen hasierako lehenengo hiru bertsoak:

1º Xenpelar: Orain asi biagu
asunto berriyan,
zer gertatutzen zaigun
Lezoko erriyan;
neska gaztiak daude
emen alegriyan
kantaren aitzakiyan
mutillen erdiyan.

2º Ardotx: Emakume kontuan
al zerade asi?
gerenez konsidera
dezagun lenbizi;
jendiari nai diot
emen adirazi,
ia zein joaten dan
neskatxen igesi.

3º Xenpelar: Ia, dama gaztiak,
ondo entzun, arren:
ez utzi sartutzen
nai dan bezin barren;
asiko lirakenak
Xenpelar baño len
bizar aundi batzuek
badirade emen.

Ondoren, Juan Jose Sarasola Azkue "Lexo"k (1.897-1.952) gazte denboran eginiko bertsoak dakartzagu Antonio Zabala bertso-biltzailearen eskutik, bere komentario eta guzti:

"Garai artan oitura zan bezela, Lexo ta bere lagunak neskaxetara joan ziran, jai-arratsalde batez, baserri batera. Aitak, ordea, atalaiarekin bialdu zituán. Ta Lexok bertso au bota zuan orduan:

Danak izaten degu
dibertitu naia,
gaztiak ibiltzeko
egiña da jaia;
etorri balitzaio
gustoko galaia,
etzuen dantzatuko
aitak atalaia.

Beste bi bertso auek, berriz, neskaxa bat eta Lexok alkarri botiak dira. Neskaxa tabernari baten alaba zan. Biak alkarrekin pixka bat tratatzen asiak zirala ematen du. Dana dala, arratsalde batez Lexo neskaxa orrengana joan zan, bañan arek bertso onekin despatxatu zuan:

Aizu, Juan Joxe, pixka batian
atzian egon zaitia,
oraindik ez da libertaderik,
itxia dago atia;
nik izanâtik zureganako
guztizko borondatia,
aitak eta amak ez baidute nai
gu biyok esposatzia.

Ta Lexok onela erantzun zion:

Disimuluan utzitzen nazu
gurasoen aitzekiyan,
zu neretzako etziñadela
lenago're banekiyan;
beste norbaitek faltako balu

ni nitzan aren tokiyan,
ez dezula nai esan zaidazu,
zertan zabilta tranpiyan?

Ikus: Jauregitar Luis: "Xenpelar bertsolaria"


Itxaropena, Zarautz, 1.958

Antonio Zavala, S.I.: "Xenpelar bertsolaria"

Auspoa liburutegia, Donostia, 1.969

Antonio Zavala, S.I.: "Lexo bertsolaria"


Auspoa liburutegia, Donostia, 1.968




LEKO BERTSOLARIA



PELAR

BADAKIZU...

- Zein urtetan sortu zen IXKULIN Elkartea?
1.970an? 1.975an? 1.977an? 2.003an? 1.572an?
- Baserri hauetatik zein dago suntsiturik?
Darieta? Etxe-txiki? Lete? Zapatazar? Olatzar?
- Lezoko Parrokia 1.557. urtean berritu zuen hargin-maisuaren izena zein zen?
Petri de Cazaras? Domingo de Juan Sanz Soro? Joannes de Salaberri?
Txepito de Urrullo? Blas de Lezo?
- "Lezo" deituriko arbolak ze fruitu ematen du?
Udareak? Sagarrak? Marrubiak? Limoiak? Azeitunak?
- Lezoko hamarri baten deitura:
Montignac? Urdaileta? Sanchez-Sanchez? Matxinbarrena? Larrauri?
- Lexo bertsolaria ze baserritan jaio zen?
Torrejilen? Martizkonen? Abendañon? Irurtzunen? Bordan?



EUSKAL ESAERA ZAHARRAK

- Katua kanpoan, saguak festetan.
- Adiskide zahar eta kontuak garbi.
- Lan lasterra, lan alferra.
- Emakume leihozale, etxean gobernu txarra.
- Hila lurpera, bizia mahaira
- Azaroa hotz, negua motz; azaroa bero, negua gero.

IZEBA MAÑOLIREN KONTSEILUAK

Gorputz-azaleko arazoak? Hazkazal ahul eta artesituak? Garbigailu eta etxeko lan gogorrek dute horren errua. Nik emango dizut erremediorik onena. Ez duzu behar ukendu eta garbigailu garestirik eta, ziur nago, oso epe motzean berri-berri utziko dizkizu. Oso erraz, gainera. Har ezazu etxeko andre bat, ordain iezaiozu hilean 60.000 pezeta eta ahaztu lasai zure eskutako arazoak.

Mañoli


DAGOKIONARI

Denbora geldirik dago. Esan guri, bestela. Berdin da noiz noiz begiratzen diozun udaletxeko erlojuari; beti ordu bera markatuko dizu. Bitatik bat: konpondu eta ordua zuzen ematen hasten da ala, dagoen bezala utziz, lezoarrak ez gara sekulan zahartuko.

Orduak beti zuzen seinalatuko dizkigun erloju bat nahi dugu eta ez egunean bi aldiz bakarrik zuzen emango duena.

Udaletxea konponketetan dagoela ta ez da nahiko aitzakia, konponketak hasi baino lehen ere markatzen bait zituen bederatzi t'erdia.

Ez da harritzeko izango aurrerantzean Lezo herri "paratu" bat dela esaten jarraitzen badute.



Kale Nagusiko 12. zenbakia. Bada hori botatzeko edo bertan zerbait egiteko garaia. Erortzen hasia da, eta dagoen dagoenean, arratoiak eta zikinkeriak sortzeko besterik ez du balio.

Eskerrak Pasamontesen ondoan zegoen estalpea botatzeagatik, istripuren bat gerta bait zitekeen bestela.

.....

Norbaitek ez al daki gure errekek kutsatuak daudenik? Ba, Zubitxoko errekarri galde biezaio. Gainera, galdetu beharrik ere ez du, aski bait du begirada bat ematea. Agerian ikusiko ditu ur gainean, Kolonen antzera, bizikleten erruedak, kaltzontzilo zaharrak, zakar poltsak... eta beste zenbait zerrikeria surrealista. Eta, "Aceros Corrugados" orain gelditurik badago, nork egiten ditu gisa horretako "apainketak"?


.....

Ekolojistik, udaletxe kaskar honetatik pezeta bat ere ez jasotzeaz gain, beren izerdiaz lortu duten mintegia lantzeko tresnak (udaletxeak beraiantzat erosiak) eskuratzean, udaletxeko bati eta besteri baimen eske ibili beharra daukate, denbora alferrik galduz. Eta hau gutxi balitz, tresnok -behin erabilita gero- udaletxera itzuli behar dituzte (kontutan har delako mintegia Elortegi inguruan dagoela eta joan-etorriek alferrikako neke bat suposatzen dietela).

Buka, mesedez, lehenbaitlehen horrenbesteko burokraziarekin eta eman Lezoko ekolojistei mintegian bertan etxol koskor batetan tresna horiek gordetzeko baimena. Mesedez diot!

.....

Bota dute CROMA. Bertan futbol zelai bat egingo omen dute. Hala bada gure zorionik beroenak, eta ez bada, kutsagarri bat gutxiago dugu Lezon, behinik behin. Ordua da ere "Eskabetxeriak" bide berdina har dezan, kutsatzen ez duen arren alferrik bait dago.




.....


"Bide ezaugarriak zertarako?, garbi ezazu norbait" esaera dela dirudi jende askoren pentsaera, kotxez nola dabiltzan ikusirik. "Pasada" bat da, horrenbeste seinal alferrik izatea! Zoazte, adibidez, Jaizkibel ibilpidera eta ohartuko zarete. neska-mutikoak eskolatik datozenean, hor dabilta kotxeak martxa bizian.

Istripu larri bat gertatu baino lehen, pentsa dezagun autogidari guztiok. Eta, agian, Lezoko zenbait tokitan komenigarriak lirateke semaforoak...

.....


 ARIES. Martxoak 21etik Apirilak 20ra.

Arazo txiki hori zeure kasa konpontzeko garaia da. Ez izan hain burugogorra eta besteen kontseiluak onartu. Arazo dijestiboak. Ez gehiegi estudiatu eta, burua argitzeko, Jaizki-belera pasiaztera joan (bidebatez zuhaitz pare bat aldatu, hi).


 TAURO. Apirilak 21etik Maiatzak 20ra.

Buruko min horiekin kontuz. Hobe duzu besteen arazoetan ez sartzea, bestela zeuk izango dituzu arazoak.


Ipurdian dituzun garatxo horiek lukainkak jateagatik azaldu dira. Kaka egin ondoren, ipurdia bidetea garbitu.

 GEMINIS. Maiatzak 21etik Ekainak 20ra.


Zure familia haunditu egingo da (ezkontza edo jaiotza batengatik). Oso momentu ona da zuretzat. Dirua emango dizuten negozioak martxan jartzeko momentu ona duzu; aprobetxa ezazu. Zeure pertsonalitate doblea azalduko da; kontrola ezazu, bestela zure jarreraz harrituta geratuko zara.

 KANZER. Ekainak 21etik Uztailak 20ra.


Beteko ez diren amets horietan pentsatzen denborarik ez galdu. Errealistagoa izan beharra dago. Ez duzu deus ere lortuko momentu honetan. Udaberriak zuregan kristonak egin ditu. Suizidatu baino lehen, ASKEra deitu. Psikiatra baten zenbakia emango dizugu.

 LEO. Uztailak 21etik Abuztuak 21era.

Orain arte nahi duzuna egin duzu. Ez pentsa udara honetan zeurearekin aterako zarekin beti. Espabilatzen has zaitez, zure lagunekin eta ingurukoekin arreta gehiago edukiz. Zure jarrera aldatzen ez baduzu, oso gaizki ibiliko zara. Tabako gutxiago erre edo, bestela, footing gehiago egin.

 VIRGO. Abuztuak 22tik Irailak 22ra.

Helmugara iritsi arte bide gogorra duzu. Nahiz eta oztopo ugari izan, saia zaitez iritsiko zara ta. Alkoholarekin kontuz ibili, batez ere konbinazioak egiten badituzu. Maitatzen duzun Sagitario horrekin erne ibili, utzi egingo bait zaitu.



LIBRA. Irailak 23tik Urriak 22ra.

Zure gaitasun artistikoak garatu ditzakezu. Antzerkera dedika zaitez; errealizatua sentituko zara. Baina, batez ere, gustatzen ez zaizun zerbaitetan lanean jartzeko erokeriarik ez egin. Kamara barruan duzun pelikula errebelatzera bidali, bestela kadukatu egingo bait zaizu.



ESKORPIO. Urriak 23tik Azaroak 22ra.

Bidaiak egiteko aukera haundiak. Zortezko jokoetan parte hartu. Diru sarrera ziur bat egingo da zuretzat. Ahaztu janari astun eta ugariak. EGAKo azterketa aprobatean, buelta gehiegi ez eman asuntoari, bestela ez duzu sinestuko ta.



SAJITARIO. Azaroak 23tik Abenduak 20ra.

Negozioetan mugimendu asko izango duzunez, arazoak besterik ekarriko ez dizkizuten aspaldiko lagunak aurkituko dituzu. Besteen kontseiluei jaramonik ez egitea hobe. Zergatik zarete hain aluak maite zaituzten pertsonekin? -Ez erantzun, badakigu. Astrologoak geu gara.




KAPRIKORNIO. Abenduak 21etik Urtarrilak 19ra.

Etsaiaren ekitearen aurrean etsi egin beharko duzu; partida berak irabaziko du. Etorrizunean ondo etorriko zaizu, esperoko ez duzun garaipen bat izango bait duzu. Kaprikornioaren ipurdia Eskorpioaren aszendentean dagoenez, zure subkonszienteari utzi lan guztiak; berak bakarrik gidatuko zaitu.



AKUARIO. Urtarrilak 20tik Otsailak 18ra.

Orain arte eduki dituzun arazo guztiak ahaztu araziko dizkizun lan ugaria. Oporraldi bat hartu eta bizitzaren aurrean hain errealista eta pesimista ez izan. Bizkaitarrak bakean utzi; ez sartu hainbeste beraiekin. Saturno kontent dago; alai zaitez.



PISZIS. Otsailak 19tik Martxoak 20ra.

Mundu guztiarekin hain haserreturik ez egon. Zure jarrerak zurekin bizi den jendeari min emango dio; ez izan hain egoista zure buruarekin. Askatasun gehiago eman iezaiozu zure buruari. Tentsioa hartzera joan. Odolaren zirkulazioa beti oker duzu. Oinetan bikarbonatoa bota.

Beste Saltsak

PETIT CHOUX

Lau pertsonentzat Petit Choux-ak egiteko behar diren gaiak:

1/4 ur.

100 gramu gurin.

200 gramu irin.

4 arraultz.

Gatz piska bat.

Eltzetxo batetan ura, gurina eta gatza jartzen dira, irakiten utziz. Irakin duenean, bota irina eta ondo nahastu.

Egurrezko koilarez, su motelean, nahasten joan pasta, lehortu arte.

Eltzetxoa sutatik atera eta arraultzak bota. Pasta bukatua dagoenean, multzo txikitan labean sartu. Urre kolorea hartzen duenean, atera. Gero ireki eta krema pastelera edo Chantilly sartu bakoitzaren barruan.

Guk jan ditugu eta oso onak daude. Entseia zaitez zu ere!


Mari Mar AROZENA

LEZOK KOSTALDEA EDUKIKO DU

Haundia da Jaizkibel, eta haundiak ere Pasaiak, Lezok eta Hondarribiak dituzten mendi puskak.

Jakina da Jaizkibelen banaketa honetan Lezok kostarik ez duela. Asko joan izan dira gure herritik arroketa lanpernen bila, arrantzara edota eguna igarotzera. Baina joaten gineneko leku horiek ez ziren gureak, ez ziren Lezokoak, Hondarribiakoak eta Pasaiakoak baizik. Lezoko herriak Jaizkibelen dauzkan lurak, lur lehorrak dira, hau da, itsasoz beste aldera daudenak.

Hau Lezotarrentzat kriston frustrazioa da. Ez da bidezkoa hain itsas tradizio haundia eduki duen herriari horrelakorik egitea. Lezotarrek itsasoa ereibindikatzen dute.




Joan den Otsailaren 31.ean Lezon zehar manifestazio bat eratu zen. Lezoko populazio erdia (hau da, 17.000 pertsona) irten zen kalera Lezorentzat kosta erreibindikatuz, "Itsasoa Lezorentzat, basamortua zuentzat" zioen kartel haundi baten atzean..

Hondarribiako eta Pasaiako udalak nahiko moskeaturik omen daude. "Ez dago eskubiderik -diote bertako bi alkateek- gaur egun daukagun kosta Don Felipe de Orleans-ek eman bait zigun "Carta Magna" baten bitartez orain dela 700 urte. Lezori azak lantzeko lurak besterik ez bazizkion eman, hori ez da gure errua".

Baina asuntua ez da hortan geratu. Pasai Donibaneko "Rodolfo Langostino" gastrono-

mi elkarteko lehendakaria den Mauricio La Torre-k kereila kriminal bat sartu dio Lezoko udalari. Azkeneko hau, berriz, Eusko Jaurlaritzarekin, zehatzago, arrantza eta astronautikako ministrariarekin harremanetan jarri da asuntua parlamentuan tratatzeko. Horretarako Lezon komisio berezi bat lanean hasia da kostaren arazo hau konpontzeko.

Dagoeneko "AGROWOMAN" enpresari deitu zaio. Komisio berezi honen lehendakariaren iritziz "Euskal Gobernuak kosta erreibindikatzen uzten ez bagaitu, prest gaude "AGROWOMAN" enpresari lanean has dadin esateko, bere grua eta eskabadorez Jaizkibel mendia iraultzeko. Honela gure lurak itsasoak bustiko lituzke".



"Erabaki hau hartzen bada.-diote, berriz, Hondarribiako eta Pasaiako alkateek-Lezori blokeo ekonomiko bat ezarriko diogu. Lezotarrek ezingo dute Hondarribiako legatza jan, ezta Pasaiako rosilarik ere".

Gaia oso konplexua da. Lezotarrek beren postura garbi azaldu dute: "Gainera, ez dago eskubiderik. Orain dela mende pilo bat, pasaitar asko, eta hondarribitarrak zer esanik ez, askotan etortzen ziren gure goiko elizara On Ramonen sermoiak entzuteran, beren herrietan elizarik ez zegoelako. Zenbat pasaitar bataiatu izan ote da Lezoko urez eta gatzez!!!

Bidezkoa deritzogu ur eta gatz guzti horiek lezotarrei bueltatzea. Eta zer hobekiago itsaso itxuran bueltatzea!!!

Hau zor historiko bat da. Ez dago beste mota batetako interesik. Guk gurea izan daitekeena besterik ez dugu erreibindikatzen. Guztiz bidezkoa den gauza bat da hau".

Asuntua hor dago bere konplikazio eta txistorrekin. Eusko Jaurlaritzak hartu be-


har duen erabakia ez da erraza izango. Espezialisten iritziz, Euskal Gobernuko lehendakaria den Joxe Jabier Gadaffik arazo hau berak pertsonalki eraman dezake. Asko bait dira Euskadik Lezoko herrian dauzkan interesak. Euskal Herri osoan bi Santo Kristo besterik ez daude. Eibarkoa, duela gutxi, Valladolid-era joan da, aspaldi eskatu bait zuen trasladoa bere famili guztia han bizi zela esanez. Honela, Euskal Herriko Santo Kristo titular bakarra Lezon geratzen da. Honek, hainbeste lan jasoaz, ez ditu lehen bezalako mirariak egiten, eta, Lezotarrak moskeatzen badira, kapaz ditugu bizarririk gabeko Santo Kristo famatua Benodorm-era oporrak pasatzera bidaltzeko (hain da zaharra!).

Manolo Reagan, lehendakari ordezkokak, deklarazio batetan, arazo honek eduki ditzazken ondorio izugarrien muestra txiki bat eman zuen: "Lezoko Gurutze Doneak langabezia % 27,5 batetan murriztu du joan den 1.985. urtean. Era berean Euskal Unibertsitateko 2.743 ikasleek, honi esker, aprobatu zuten kurtsoa. Eta alkoholaren kontsumoaren media ere nibelatu egin du. Lehen Euskadin urtean zehar 500 litro alkohol edaten zuten 200 mila pertsona bazeuden, orain urtean 250 litro edaten duten 400 mila pertsona bakarrik daude".

Asuntoa, esan bezala, hor dago bere konplikazio guztiekin. Benetan gai latza. Nola konpondu? Nork izango du azkeneko hitza?

Ez dakigu. Baina Lezok kosta erreibindikatzen du. Eskubide guztiekin, gainera.

Mikel SUSPERREGI



ERREDAKZIO TALDEA

Jose Luis Aperribay

Mari Mar Arozena

Imanol San Sebastian

Mikel Susperregi

Juan Luis Urkizu

Lander Zurutuza

MARRAZKILARIAK

Juan Luis Urkizu

Lander Zurutuza

ARGAZKILARIAK


Mikel Susperregi

Lander Zurutuza



Hi ona haiz,
zeren hik ASKE erosi
eta irakurtzen duk!

BABESLE:



**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**